prentsa oharra
nota de prensa

Gasteiz, 2021eko urtarrilalaren 20an

**STEILAS sindikatuak elkartasun osoa adierazi nahi die Aldaialdeko hezkuntza komunitatea osatzen duten familia eta langile guztiei**

Azken bi hamarkadetan Gasteizeko biztanle kopurua asko hasi da. Duela 20 urte baino 40000 biztanle gehigo ditu Gasteizek. Salburua eta Zabalganako auzoek hartatu dituzte biztanle gehien azken urte hauetan. Agerikoa zen auzo hauek ikastetxe publiko berriak beharko zituztela.

Baina azken hamarkadan PSEk, PPk eta EAJak eginiko kudeaketa tamalgarria izan da. Salburua auzoan Errekabarri ikastetxea auzoko familien presio eta mobilizazioen ondoren eraiki zen, agindutakoa baino askoz beranduago. Auzoko institua ere berandu dabil, eta Errekabarriko ikasleen etorkizuna zein izango den ez dakigu. Denok egoera zein den jakin arren, arduradun politikoen jarrera etsigarria izaten ari da, berriro ere.

Baina bereziki kezkagarria da Aldaialdeko familiek bizi duten egoera. PSEk, PPk eta EAJak kudeaketa axolagabea egin dute Udalean zein Jaurlaritzan. Erantzukizun politikoak mahai gainean jarri behar dira eta milaka ikasleren hezkuntza eskubidearekin horren modu ardueragabean aritu direnek dimisioa eman beharko lukete.

Jaurlaritzari eta Udalari, behingoz,  dagokien ardurarekin eta erantzukizunarekin aritu daitezela exijitzen diegu, salbuespenezko irtenbideak bilatuz beraiek sortutako korapiloa askatu ahal izateko. Halaber, STEILAS sindikatuak elkartasun osoa adierazi nahi die Aldaialdeko hezkuntza komunitatea osatzen duten familia eta langile guztiei.

**....................................**

**STEILAS quiere mostrar su solidaridad con todas las familias y trabajadoras que conforman la comunidad educativa de Aldaialde.**

En las dos últimas décadas el número de habitantes de Vitoria-Gasteiz ha aumentado considerablemente. Cuenta con  40000 habitantes más que a hace 20 años y son los barrios de Salburua y Zabalgana quienes han acogido a más  población en los últimos años. Resultaba evidente que estos barrios necesitarían nuevos centros públicos.

Pero la gestión de PSE, PP y PNV en la última década ha sido lamentable. En el barrio de Salburua el colegio Errekabarri se construyó tras las presiones y movilizaciones de las familias del barrio, mucho más tarde de lo prometido. El instituto del barrio también llegará tarde y no sabemos cuál será el futuro del  alumnado de Errekabarri.  A pesar de que la situación ha vuelto a sobrepasar todos los límites, la actitud de los responsables políticos está siendo, de nuevo, decepcionante.

Pero es especialmente preocupante la situación que viven las familias de Aldaialde. PSE, PP y PNV han hecho una gestión negligente tanto en el Ayuntamiento como en el Gobierno Vasco. Ante esta situación, ya va siendo hora de depurar responsabilidades políticas. Quienes han actuado de forma tan irresponsable y han jugado con el derecho a la educación de miles de alumnos y alumnas, deberían dimitir.

Exigimos al Gobierno Vasco y al Ayuntamiento que actúen, de una vez por todas, con la responsabilidad que le corresponde y propongan soluciones excepcionales para las situaciones insostenibles que ellos mismos han generado. Asimismo, STEILAS quiere mostrar su solidaridad con todas las familias y trabajadoras que conforman la comunidad educativa de Aldaialde.

www.steilas.eus

Araba 945 14 11 04 araba@steilas.eus | Bizkaia 944 10 02 98 bizkaia@steilas.eus | Gipuzkoa 943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus | Nafarroa 948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus